

ESTATUTUAK

1 Atala

Euskadiko Udalen Elkarte-Asociación de Municipios Vascos, Eusko Legebiltzarraren Elkartei buruzko 3/1.988 Legepean, Estatutu hauetan jasotako helburuak iristeko bere borondatez atxeki dakizkion Udal guztiek osotzen dute, bere iharduera bereziki Euskal Herrian garatuko delarik.

2 Atala

Estatutu hauen, Gobernu Organuek hartutako akordioen eta osagarri modura, lehen aipatutako 3/1.988 Legearen eta bere garapenerako onar daitezen arauzko aginduen arabera erregulatuko da Elkarteak.

EGOITZA

3 Atala(2002ko Apirilaren 26an Eudelen Ohizko Batzar Orokorrak hartutako akordioaren arabera idatzitako artikulua).

Elkarteak GASTEIZen du bere egoitza, Manuel Iradier kalean, 7. zenbakian, 2. solairua. Hala ere, Elkartearen bilkurak Euskal Herriko edozein tokitan egin ahal izango dira.

IRAUPENA

4 Atala

Elkartearen iraupena mugagabea da.

HELBURUAK

5 Atala

Elkarteak honako helburuok ditu:

- a) Udal-autonomiaren suztapena eta babesa.
- b) Elkarkideen sudu orokorren aldepena eta ordezkartza, politika eta administrazio-agintaritzen aurrean.
- c) Udal-arazoei buruzko azterlanak burutzea beren kudeaketa bideratu, askatasuna ziurtatu eta aurrerapena bultzatzeko.
- d) Udal-erakundengan europazaletasuna garatzea, Europako eta nazioarteko erakundeetan partaidetza eta ordezkartza bultzatuz.

6 Atala

Elkarteak, helburu horiek gauzatzeko:

- a) Ihardute-egitura egokia sortuko du.
- b) Udal-gaiei buruzko berrien trukaketa bideratuko du.
- c) Aholku eta laguntza-zerbitzuak osotuko ditu bere kideentzat.
- d) Bilerak, mintegiak eta biltzarrak antolatuko eta bertan parte hartuko du.
- e) Elkartekideak ordezkatzeko ditu herri-sailen aurrean eta, behar izanez gero, legezko araubidearen zehaztapenean eta Udal-Batzei dagozkien beste guztietan eskuhartuko du.
- f) Argitalpenak eta argibide-agiriak bultzatuko ditu bere ardurapeko arloetan.

ELKARTEKO KIDEAK

7 Atala

1. Elkartea kide osoz eta kide laguntzailez osotzen da. Atxekitako Udalak dira kide osoak. Elkarteari atxeki dakizkion udal mankomunitateak, udal-elkarteak, toki-erakunde txikiak eta beste toki-erakundeak dira kide laguntzaileak.

2. Kide osoek eta kide laguntzailek, beren Buru edo hartarako izendaturiko bazkidearen bitartez eskuhartuko dute Elkartean.

8 Atala

1. Elkartekide osoen eskubide eta betebeharrak honako hauek dira:

- a) Estatutu hauek eta Elkarteko ihardute-sailen erabakiak gordetzea.
- b) Batzar Orokorraren bilkuretara hizpidez eta hautespidez aurkeztea eta, halaber, dei egindako batzar eta, orohar gizarte-ekintza guztietara aurkeztea.
- d) Aukeratuak izan daitezeneko agintaritza-karguak betetzea.
- e) Ezarritako ordainkizunak ordaintzea.
- f) Elkaratearen zereginetan parte hartzea.

2. Kide laguntzailek, Elkaratearen zerbitzuen aholkua eta bere ekintzen informazio zehatza jasotzeko eskubidea dute, bere helburuen arabera. Halaber, zerbitzu hoi-izaera kontutan harturik, Batzarrak finkatutako kuotak ordaindu beharko dituzte.

9 Atala

1. Kidetza galdu egingo da:

- a) Kidearen beraren erabakiz.
- b) Ordainkizunak ez ordaintzeagatik.

GOBERNU ORGANUAK

10 Atala

Elkarteko ihardute-sailak hauek dira:

- a) Batzar Orokorra.
- b) Batzorde Eragilea.
- c) Lurralde-Batzordeak.

Batzar Orokorra

11 Atala

Batzar Orokorra da Elkartearen ihardute-sail nagusiena eta elkartekide guztiek osotzen dute.

12 Atala

Compete a la Asamblea General:

Batzar Orokorraren ardura da:

- a) Estatutuak onartu eta berriztatzea.
- b) Batzorde Eragileko kideak aukeratu eta hauen kudeaketa zaintzea.
- c) Urteko iharduketa-egitamua onartzea.
- d) Aurrekontuak eta Kontu Orokorrak onartzea.
- e) Barne-Araudia onartzea.
- f) Elkarte desegitea.
- g) Estatutu hauetako 9 artikulua b) zatian aurrikusitako kasuan kide izateari uztea.
- h) Lege edo Estatutuen arabera dagozkion beste guztiak.

13 Atala

1. Batzar Orokorrak Ohizko eta Ohiz kanpoko bilkuren bidez ihardungo du.
2. Batzarrak urtean behin egingo du Ohizko bilkura, eta Ohiz kanpoko, Batzorde Eragileak egoki deritzon guztietan eta kide osoen bostenak edota bere botuak kide guztien botuen bostena lor dezaketen kideen kopuruak eskatuta.
3. Gutxienez hilabete aurretik egingo dira bilkuretarako deiak.
4. Batzarra indar osoz eratzeko, Ohizkoa edo Ohiz kanpoko delarik, kide osoen gehiengoa bertan izatea da beharrezko, lehenengo deian; ordu erdi geroago, bigarren deian, bertarutzen direnean kopura dena delarik egingo da.

14 Atala

1. Bai Ohizko Batzarrerako zein Ohiz kanpokorako, deiaz batera Aztergai-Zerrenda igorriko da. Erabiliko diren gaiak, Batzorde Eragileak onartuko ditu. Eta nahita-nahiez barneratu beharrekoa izango da Elkartearen helburuetarikoak izan eta kide osoen bostenak gutxienez eskatutakoa balitz.edota bere botuak kide guztien botuen bostena lor dezaketen kideen kopuruak eskatutakoa.

2. Batzarrak Aztergai-Zerrendako gai guztiak aztertu eta erabakiko ditu.

15 Atala

1. Orokorki, emandako botuen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak.

2. Emandako botuen gehiengo soilak baino zabalagoa den bi herenekoak edo lau bostenekoak behar izango da Estatutuak berritzeko edo Elkartea desegitea erabakitzeke, hurrenez hurren.

3. Ez da onartuko kideen botu-ordezkoak.

16 Atala

Batzarrean elkartekide oso bakoitzak izango dituen botuak, ondorengo mailaketari dagozkionak dira:

2.500 biztanlerainoko udalak	botuak, 1
2.501etik 5.000 biztanlerainoko udalak	botuak, 3
5.001etik 10.000 "	botuak, 5
10.001 etik 20.000 "	botuak, 10
20.001 etik 50.000 "	botuak, 15
50.001 etik 100.000 "	botuak, 20
100.001 etik 200.000 "	botuak, 25
200.000 biztanletik gorako	botuak, 30

Batzorde Eragilea

17 Atala

1. Kideen ordezkarien artetik aukeratutako Lehendakari batez, bi Lehendakariordez eta hamabi kidez osotuko da Batzorde Eragilea.

2. Hautapena zerrenda hertsi bidez egingo da.

3. Postuak, hauteskunde banakin eta hondar nagusien sistemaren bidez proportzioz banatuta esleituko dira.

4. Hutsuneak, bere kasuan, betegabea egon den zerrendaren hurrengoak edo hurrengoek beteko dituzte.

5. Lehendakaria, botuen gehiengoa lortu duen zerrendaren burua izango da. Emandako botuen %15a lortu dutenen artean, bigarren eta hirugarren boturik gehien izan duten zerrendetako buru direnak Lehenengo Lehendakariorde, eta Bigarren Lehendakariorde aukeratuak izango dira. Horrela ez bada, Lehendakariordetzak, %15 gainditu dituzten zerrendetakoak izango dira.

6. Hala ere, emandako botuen bosteko laua lortu duten edozein hautagaiak izango dira hautatuak.

18 Atala

Batzorde Eragilea, Udalek arauzko agintaldia betetzean berritzen direnean berrituko da. Horretarako, Batzar Orokorrerako bi hilabeteko eperaren barruan zabalduko da deia.

19 Atala

Batzorde Eragilea Lehendakariak erabakitzen duenean bilduko da, edo bere kideen bostenak, gutxienez, eskatuz gero. Beti ere, gutxienez urtean sei aldiz bilduko da.

20 Atala

1. Batzorde Eragilearen eginkizunak honako hauek izango dira:

- a) Batzar Orokorraren erabakiak eragitea.
- b) Politika eta administrazio-agintaritzekin harremanak izatea, Lehendakariaren ordezkari-tza-ahalmenaren kaltetan gabe.
- c) Azterlan eta argitalpenak bideratzea.
- d) Ondarearen ardura artetzea.
- e) Elkarteko zerbitzurako langile-politika artetzea.
- f) Kide berrien atxekitze-eskariak jasotzea.
- g) 9.b atalak aipatzen duen kide-tza galtzeko espedientea bideratzea.

2.- Batzorde Eragileak azterlan-taldeak sortu ahal izango ditu, Elkartearen helburuekin zerikusia duten gaietan txostenak eta erizpenak egiteko.

21 Atala

Lehendakariak legezko ondorio guztietarako ordezkatzeko du Elkartea. Halaber, Batzarraren eta Batzorde Eragilearen bilkuretarako deia egin, buru izan eta zuzenduko ditu, bere eskubideetarik batzuen ordezkotza Lehendakariordeei utzi diezaieke.

Lurralde Batzordeak

22 Atala

1. Lurralde bakoitzean Batzorde bat osotuko da, Estatutu hauekin eta Batzar Orokorrak erabakitzen duenarekin bat etorritz.

2. Lurralde-Batzordeek duten eginkizunik behinena, bakoitzaren Lurraldeko ihardute-sailen aurrean udalen suduen aldezpena egitea da, eta hau, Batzar Orokorrak eta Batzorde Eragileak onartutako erizpide nagusiekin bat etorritz.

Halaber, Batzorde Eragilearen ihardute-sail aholku-emaile bezala ihardungo dute Lurralde-Batzordeek, egoki deritzen txostenak eta saloak egin eta goragoko ihardute-sailei jaso ahal izango dizkietelarik.

3. Lurralde-Batzordeak bederatzi kidez osotzen dira, zerrenda hertsien bidez Lurralde bakoitzeko kide osoek hautatuak, eta beren artean postuak hauteskunde banakin eta hondar nagusien sistemaren bidez proportzioz banatuko dira.

4. Hutsuneak, baleude, zerrenda beraren hurrengoak edo hurrengoek beteko dituzte.

EKONOMIA-JAURBIDEA

23 Atala

1. Elkartearen dirubideak hauek izango dira:

- a) Elkartekideen ordainkizunak.
- b) Elkartearen Ondarearen mozkinak.
- c) Behin-behingo gerta daitezkeen beste batzuk.

2. Urteko ordainkizunak Batzar Orokorrak onartuko ditu, ordainkizunok berdintasun-arauzko erizpidez zehaztuko direlarik.

ELKARTEA DESEGITEA

24 Atala

Elkartea deseginez gero, kitapena egingo da, ondarea kideen artean banatuz, bakoitzari zegokion ordainkizun-kopuruaren arabera, betebeharreko zorrei erantzuteko premiazko baliabideak atera ondoren.

LEHEN ERABAKI GEHIGARRIA

Euskadiko Udalen Elkartea, 1.982eko maiatzak 8an sortua, hasierako ondarerik gabe, Estatutu hauen bidez, Eusko Legebiltzarraren 3/1.988 Legea, otsailak 12koa, Elkartei buruzkoaren pean jartzen da.

Batzorde Eragileak, 3 hilabeteko epe barruan, bere izena emango du Elkarate Erroldan.

Estatutu hauek onartzen diren egunean ez da beharrezkoa, udalerrri kidek bere atxekitasuna berrestea ezta inolako izapiderik egin dezaten bere kidetasuna mantentzeko.

BIGARREN ERABAKI GEHIGARRIA

Euskadiko Udalen Elkarreak - Asociación de Municipios Vascos antzerako beste Elkarate edo Federakuntzekin lankidetzak bideak ezarriko ditu baterako helburu guztietan.

ANTOLAKETA ETA IHARDUERA-ARAUDIA

I. ATALBURUA ELKARTEA ETA ELKARTEKIDEAK

1 Atala

1. Euskadiko Udalen Elkarte-Asociación de Municipios Vascos, Eusko Legebiltzarraren otsailak 12ko Elkartei buruzko 3/1988 Legepean dagoena, bere Estatutueta jasotako helburuak lortzeko atxekitzea erabaki dezaten udal guztiak osaturik dago, bere iharduera bereziki Euskal Herrian garatuko duelarik.

2. Bere Estatutuen, Gobernu Organuek hartutako akordioen eta, osagarri modura, lehen aipatutako 3/1988 Legearen eta bere garapenerako onar daitezen arauzko aginduen arabera erregulatuko da Elkarte.

3. Araudi honetan ezartzen diren izaera eta ondorioekin, eta, hala badagokio, Batzar Orokorrak har ditzan akordioetan, atxekitzea erabaki dezaten elkartekideen goi-udal, azpi udal edo barne egituruko entitateak izango dira Elkarteko kideak.

2 Atala

1. Elkarteari atxeki nahi dakizkion udal Entitatek, batzazko akordioaren egiaztapen agiria bidalduz, idatziz eskatuko dute bazkidetza.

2. Bazkidetza eskabidea eskuratutakoan, Batzorde Eragilearen lehenengo bilkuran sartuko da gauzatzeko, honek eskabide-egilearen toki erakunde eta kide osoaren izaera egiaztatu eta adieraziko ditu Udalen kasuetan eta kide laguntzailearena 1 artikulua 3 zatian aipatzen diren entitateen kasuetan.

3 Atala

1 atalaren 1 zenbakiaren ondorietarako, Udal batzaren osoko bilkurak erabakitzen duen momentutik atxekituzat joko da Udala. Era berean ulertuko da, 1 atalaren 3 zenbakiak aipatzen duen entitate lokaleen kasuan, arauz dagokion organuak bala erabaki dezanean.

4 Atala

1. Kide osoak, beren Alkate-Udalburu edo hartarako izendaturiko bazkidearen bitartez eskuhartuko dute Elkartean. Kide laguntzaileek beren Buruaren bitartez eskuhartuko dute.

2. Kideak ez duenean bere Buruaren bitartez eskuhartzen, hartarako izendaturiko bazkideak, ezbairik gabe egiaztatu beharko du bere izaera, Udal-Batzako Idazkariak egindako egiaztapenaren bidez.

5 Atala

1. Elkarreak Gasteizen, Fueros kalea, 5 du bere egoitza. Halere, Elkarrearen elkarreango ihardute sailen bilkurak Euskal Herriko edozein tokitan egin ahal izango dira.

2. Aurrekoaren ondoriotarako, Elkartekideen egoitzak Elkarrearen elkarreango ihardute-sailen bilkuretarako, honen eskura.

II ATALBURUA. ORGANUEZ OROKORREAN

Artículo 6

1. Elkarteko ihardute-sailak Batzar Orokorra, Batzorde Eragilea eta Lurralde-Batzordeak dira.

2. Aurrekoen erabaki pean jarri behar diren gaien ikerketarako funtzioekin, ihardute sail laguntzailek ezar daitezke Araudi honen arauera.

Batzar Orokorra

7 Atala

Batzar Orokorrari dagokio:

- a) Estatutoak onartu eta berriztatzea.
- b) Batzorde Eragileko kideak aukeratu eta hauen kudeaketa zaintzea.
- d) Urteko kudeaketa-egitامua onartzea.
- e) Aurrekontuak eta kontu Orokorrak onartzea.
- f) Barne-araudia onartzea.
- g) Elkarrea desegitea.
- h) Kide izatea galtzea onartu, Estatutuen 9 artikularen b) zatiak aurrikusten duenerako.
- i) Lege edo Estatutuen arabera dagozkion beste guztiak.

8 Atala

1. Batzar Orokorrak ohizko eta Ohiz kanpoko bilkuren bidez ihardungo du.
2. Batzarrak urtean behin egingo du ohizko bilkura eta ohiz kanpoko, Batzorde Eragileak egoki deritzon guztietan eta kide osoen bostenak edota bere botuak kide guztien botuen bostena lor dezaketen kideen kopuruak eskatuta.
3. Gutxienez hilabete aurretik egingo dira bilkuretarako deiak.
4. Batzarra indar osoz eratzeko, ohizkoa edo ohiz kanpoko delarik, kide osoen gehiengoa bertan izatea da beharrezko, lehenengo deian; ordu erdi geroago, bigarren deian, bertaratzen direnean kopurua dena delarik egingo da.

9 Atala

1. Bai ohizko Batzarrerako zein Ohiz kanpoko, deiaz batera aztergai-zerrenda igorriko da. Erabiliko diren gaiak, Batzorde Eragileak onartuko ditu. Eta nahita-nahiez barneratu beharrekoa izango da Elkaratearen helburuetariko izan eta kide osoen bostenak gutxienez eskatutakoa balitz edota bere botuak kide guztien botuen bostena lor dezaketen kideen kopuruak eskatutakoa. Batzarra baino lehen, gaiei buruzko dokumentazioa bialduko da elkartekide guztiei.
2. Batzarrak aztergai-zerrendako gai guztiak aztertu eta erabakiko ditu.

10 Atala

1. Aztergaiak lehendabizi eztabaidatuak eta gero botatuak izango dira.
2. Ez da onartuko kideen botuordezkotzarik.

11 Atala

1. Batzarrak Lehendakariak proposatuz, aztergai bat bilkuraren beste momento batetan eta ez aztergaien zerrenda jarraituz dagokionean aztertzea erabaki dezake, beti bilkuraren beraren barruan.
2. Eztabaida bidezkoa izango da norbaitek hitza eskatzen duenean edo aparteko botuak edo zuzenketak aurkezten direnean. Kasu honetan, egileak mantendu edo ken ditzake.

12 Atala

Elkartekideek Batzar Orokorraren bilkura ospatzea eskatzen dutenean, lehendakariak eskabidea jaso ondoko hilabetearen barruan egingo du deialdia.

13 Atala

1. Hauteskunderi buruzko arauketaren kaltetan gabe, akordioak ohizko bozketaren bidez hartuko dira, Batzarrak berak ez badu izenezko bozketa erabakitzen. Ohizko bozketa eskua altxatuz egiten da. Izenezko bozketa bertan daudenak Idazkariari bai ala ez erantzuten egiten da.

2. Gai baten eztabaida hasita, gabeziak abstentziotzat hartuko dirá bozketarak.

14 Atala

Batzarrak, emandako botuen gehiengo soilez hartzen ditu bate akordioak. Gehiengo soila baiezko botuak ezezkoak baino gehiago direnean dago. Berdinketa kasuan, bozketa, berri bat egingo da eta berdinketak jarraitzen baldin badu, Lehendakariaren botua duen aukera onartuko da.

15 Atala

1. Elkartea desegiteko, emandako botuen bosteko laua aldekoa izatea beharrezkoa da.

2. Estatutuek aldatzeko, emandako botuen hiruko bi aldekoa izatea beharrezkoa da.

16 Atala

Batzarrean elkartekide oso bakoitzak izango dituen botuak, ondorengo mailaketari dagozkionak dira:

2.500 biztanlerainoko udalak	botuak, 1
2.501etik 5.000 biztanlerainoko udalak	botuak, 3
5.001etik 10.000 "	botuak, 5
10.001 etik 20.000 "	botuak, 10
20.001 etik 50.000 "	botuak, 15
50.001 etik 100.000 "	botuak, 20
100.001 etik 200.000 "	botuak, 25
200.000 biztanletik gorako	botuak, 30

17 Atala

Batzarra balioz osotu ondoren, bere iharduera honako arau hauei atxikituko da

1.^a Lehendakariak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai zerrendako dagokion puntua irakurriko da eta, hala, badagokio, aparteko botu ata zuzenketak.

2.^a Aurreko agiriak irakurrita Lehendakariak eztabaida irekitzat joko du eta gaiak ahobatez onartuko dira inork ez badu hizpiderik eskatzen. Norbaitek hizpidea eskatuko balu, berak edo bere ordezkariak hitz egingo du, eta honen ondoren, eskatu duten besteek hurrenkeran, Lehendakariak, ihardespren eta bikoizketa txandak eta hitza aipamenez eman ahal izango dituelarik Eskuhartzeak ez dira 10 minututako baino luzeagoak izango. Lehendakariak bakarrik etenduko du hizpidea denpora gehiegi irauntzen badu, gaiaz urruntzen edo hitz egindakoari buruz itzultzen bada edota agindura deitzea beharrezkoa denean.

3.^a Lehendakariak gaia nahiko eztabaidatuta dagoela pentsatzen duenean, amaitutzat joko du. Lehendakariak bate iritziz Batzarraren erabakiak gehiegi luzatzen duten gertakizunak ebatziko ditu.

4.^a Eztabaida amaitu eta aparteko botu eta zuzenketak botatu ondoren, lehendakariak zehatz eta argi aurkeztuko du botatzeko era eta hasiera aginduko du.

18 Atala

Lehendakariak ordenara deitu ahal izango du eta hizpidea kendu Araudia hausiko balitz eta hitz iraingarriak edo Instituzio Publikoen izen onaren kontrakoak esango balira.

19 Atala

Bilkura bakoitzeko Agiria jasoko du Idazkariak honako punto hauek adierazirik :

- a) Bileraren tokia, ospatzen den udala eta egoitzaren izenarekin.
- b) Eguna, ilea eta urtea.

d) Hasiera ordua.

e) Lehendakaria eta bertaratzen direnen izena, abizenak, kargu eta udala eta ez etorriaren barkamena eska dezaten kideen aipamena.

f) Bilkuraren ohizko edo ezohizko izaera eta lehen edo bigarren deialdian ospatzen den.

- g) Zuzendaria eta Idazkaria edo beren ordezkarien bertaratzea.
- h) Azter daitezen gaiak eta hauei buruzko akordioen zati erabakitzailea.
- i) Froga daitezen bozketak.
- j) Bertaratzen direnean iritzi laburtuak eta hauen oinarriak eta aparteko botuak, ahobateko iritzia lor ez dezanean eta doakionak hala eskatzen duenean.
- k) Bilkuraldian gertatzen den guztia eta aipatzeko moduko Idazkariaren ustez.
- l) Lehendakariak bilkura amaitzen duen ordua.

20 Atala

1. Bilkura bakoitzaren hasieran Idazkariak aurrekoaren agiria irakurriko du eta ez badu inork kontrajartzen, onartuta izango da.

2. Erabakiak hartzerakoan parte hartu duen kideren batek punto baten adierupenean zalantzarik aurkituko balu, lehendakariari zehaztea eska diezaioke, edo, bidezkotzat jotzen bada, Agiria berridatziko da, idazkera-huts soilak edo izatezkoak zuzenduz, hartutako akordioak funtsean aldatu gabe. Zuzenketa Agiriaren ondoan idatziko da.

3. Agiri bakoitzaren aurrekoaren irakurketa eta onarpena adierazterakoan, aurreko letroaldiaren arauera egindako zuzenketa edo oharpenak jarriko dira.

Batzorde Eragilea

21 Atala

1. Kideen ordezkarien artetik aukeratutako Lehendakari batez, bi Lehendakariordez eta berenezko hamabi kidez osotuko da Batzorde Eragilea.

2. Hautapena zerrenda hertsia bidez egingo da.

3. Postuak, hauteskunde banakin eta hender nagusiaren sistemen bidez proportzioz banatuta esleitu dira.

4. Hutsuneak, baleude, betegabea egon den zerrendaren hurrengoa edo hurrengoak beteko dituzte.

5. Lehendakaria, botuen gehiengoa lortu duen zerrendaren burua izango da. Emandako botuen % 15a lortu dutenen artean, bigarren eta hirugarren boturik

gehien izan duten zerrendetako buru direnak lehenengo Lehendakariorde eta bigarren Lehendakariorde aukeratuak izango dirá. Horrela ez bada, Lehendakariordetzak % 15 gainditu dituzten zerrendetakoak izango dira.

6. Hala ere, emandako botuen bosteko laua lortu duten edozein hautagaiak izango dira hautatuak, Lehendakaria zerrendaren burua izanik eta lehen lehendakariorde eta bigarrena zerrenda beraren bigarrena eta hirugarrena aukeratuak izanik.

22 Atala

Batzorde Eragilea, Udalek arauzko agintaldia betetzean berritzen direnean berrituko da. Horretarako, Batzar Orokorrerako bi hilabeteko epearen barruan zabalduko da deia. Hala era, Batzorde Eragilearen kideek bere funtzioetan ihardungo dute agizko administraziarako, ordezkatuak izan arte, baina gehiengo berezia behar den akordiorik ez dote hartuko.

Era berean, hutsaldirik gertatuko balitz, berehala beteko litzakete dagokion zerrendetako hurrengoekin.

23 Atala

Batzorde Eragilea Lehendakariak erabakitzen duenean bilduko da, eco kideen bostenak gutxienez eskatuz gabe. Beti ere, gutxienez urtean sei aldiz bilduko da.

24 Atala

Batzorde Eragilearen eginkizunak honako hauek izango dira:

- a) Batzar Orokorraren erabakiak eragitea.
- c) Politika eta administrazio-agintaritzekin harremanak izatea.
- d) Lurralde-Batzordeen lanak koorkinatzea.
- e) Azterlan eta argitalpenak bideratzea.
- f) Ondarearen ardura artetzea.
- g) Elkarteko zerbitzurako langile-politika artetzea.
- h) Kide berrien atxekitze-eskariak jasotzea.

i) Estatutuen 9.b atalak aipatzen duen kidetza galtzeko espedientea bideretzea.

25 Atala

Batzorde Eragileak azterlan-taldeak sortu ahal izango ditu, Elkartearen helburuekin zerikusia duten gaietan txostenak eta erizpenak egiteko.

26 Atala

Lehendakariaren kanpoaldi edo gaixotasunaren kasuetan, Lehendakariordeek izendapen hurrenkeran ordezkatzeko dute.

27 Atala

Lehendakariak legezko ondorio guztietarako ordezkatzeko du Elkartea. Halaber, Batzarretan eta Batzorde Eragilearen bilkuretarako deia egin, buru izan eta zuzenduko ditu, bere eskubideetarik batzuen ordezkotza Lehendakariordeei eman diezaieke.

28 Atala

10, 14 eta 20 artikuluek ezar dakizkioke Batzorde Eragileari. Baita era 1 9 artikulua e) hizkia eta d) hizkia, izena, abizena, kargua eta udalaren aipamenak, bertarutzen diren eta ez direnen artean, ez etorriaren barkamena eskatu ala ez, egingo direla esaten duen puntuan izan ezik.

29 Atala

Batzorde Eragilearen kideek dagokien Lurralde-Batzordearenak era izan daitezke.

Lurralde-Batzordea

30 Atala

1. Lurralde bakoitzean, kide titularrek zerrenda hertsien bidez aukeratutako bederatzi kidez osotatutako Batzorde bat egingo da. Zerrenda horretan, hauteskunde banakin eta hondar nagusiaren sistemen bidez, proportzionalki banatuko dira postuak.

2. Hutsuneak, baleude, betegabea egon den zerrendaten hurrengoia edo hurrengoek beteko dituzte.

31 Atala

1. Lurralde-Batzordeak duten eginkizunik behinena, bakoitzaren Lurraldeko ihardutesalien aurrean udalen suduen aldezpena egitea da, eta hau, Batzar Orokorrak eta Batzorde Eragileak onartutako erizpide nagusiekin bat etorritz.

2. Halaber, Batzorde Eragilearen ihardute-sail aholku emaile bezala ihardungo dute Lurralde Batzordeek, egoki deritzen txostenak eta saloak egin eta goragoko ihardute-sailei jaso ahal izango dizkietelarik.

32 Atala

Lurralde Batzordeak hilean behin bilduko dira bere kide batzuen zuzendaritzapean, hauek bilera bakoitzean txandakatuz. Horretarako, bilkura bakoitzean esango den nor izango da hurrengo bilkura zuzenduko duena.

33 Atala

Lurralde Batzordeetan Batzorde Eragileaten kiderik ez balego, honek, horretarako Lurralde Batzordeko partaideak bezala deitua izango den kide bat egotea aginduko du.

Organu Guztientzako erabakiak

34 Atala

Bilkura guztiak hartan diren egun borran amaituko dira.

35 Atala

Jaurtze-sailen eztabaiden erregularitatea zihurtatzeko, hauen zuzendariak, bidezko arrazioengatik eten ditzake bilkurak.

36 Atala

Bilkura guztietako agiria jasoko da.

III ATALBURUA ANTOLAKETA ETA IHARDUERAZKO ARAURATZUK

37 Atala

1. Zuzendaria da Elkartearen egiteratzesaila.
2. Batzorde Eragileak izendatu eta ezeztatzen du zuzendaria.

38 Atala

Bestalde, egitaratze-sailen akordioen fede egingo duen Agirien Idazkari bat egongo da.

39 Atala

Aginte Publikoei zuzendutako adierazkiak Lehendakariak izenpetuko ditu eta besteak zuzendariak.

40 Atala

1. Urtean behin, egon daitezkeen betebeharren eta diru-sarrerren aurrekontua onartuko da.

2. Diru-sarrerren eta gastuen kontuak kontularitza publikora moldatuko dira.

3. Kontuak, Batzordeak onartu baino lehen, Batzorde Eragilearen txostenarenpean jarriko dira.

41 Atala

Araudi eta Estatutu hauen aldaketa, hurrengo ihardunbidera moldatuko da

a) Espedientearen hasiera.

Batzorde Eragilearen akordioz hasiko da espedientea, eta hau, ofizio bidez, kide osoen bostenak edo bate botuak kide guztien botuen bostena lor dezaketen kideen kopuruak eskatoca.

Kasu honetan, eskabidea, gaurko aginduen ordezkoen testuekin batera joango da berariz eta zehazki adierazita zeintzuk izan behar diren hauek eta Batzorde Eragileari hile bateko epearen barruan emango zaio horren berri, aldi berean Batzarraren deiaidua akordatua izanik.

b) Elkartekideei berri-ematea.

Batzorde Eragilearen proposamena, eco kiden eskaera ofizioz hasiko ez balitz, Batzarra baino bi hilabete lehenago jakin erwiko zaie kideei, hauen zuzenketa edo oharpenak lehen hilabetearen barruan Batzorde Eragileari bialduko zaizkiolarik.

d) Espedienteen onarpena.

Batzordearen onarpean jarriko da espedientes, eta honek aurretiaz, epearen barruan aurkezturiko zuzenketa ata oharpenei bumz erabakia hartuko du.

ERABAKI GEHIGARRIAK

LEHENA. Eikarte-egoitza Vitoria-Gasteizko Fueros, 5 kalean finkatzen da. Batzorde Eragilearen akordioz, unitate eraginkorrak azar daitezke baste herri batzutan.

BIGARRENA. Batzorde Eragilearen kideak hautatzeko arauak :

21.2 artikulua aipatzen duenerako, hurrengo arauak jarraituko dira:

1.^a Batzarraren deialdi eta ospakizunaren bitartean ez dira bi hilabete baino gehiago izango.

2.^a Elkartekideen alkateak edo hauek izendaturiko Udal-batzak izango aire hautesle eta hautagaiak.

3.^a Bilkura baino bost egun aurretik aurkeztuko dira kandidaturak.

4.^a Adin nagusiko eta txikieneko hautesleak osatuko dute lehendakaritza mahaia, horretarako Elkartearen Idazkariak lagundurik.

5.^a Hautesle bakoitzak zerrenda bateri bakarrik emango dio botua, bertan aldaketarik sartu gabe eta hautagaien ordena aldatu gabe.

6.^a Postuen leporatzea hurrengo Arauen arabera egingo da

a) Zerrenda bakoitzeko botuak hamabostetik biderkatzen dira eta emandako botuaren guztiratik zatitzen dira.

b) Hauteskunde zatidurak adierazten duen postuen kopurua dagokio zerrenda bakoitzari, gainerazkoak, 15 arte, hondar nagusien zerrendeei esleiluko direlarik.

d) Zenenda bakoitzari dagokion postuen kopurua zehazturik, bertako hautagaieie esleituko zaizkie, agertzen diren hurrenkeran.

e) Lehendakaria, botuen gehiengoa lortu duen zerrendaren burua izango da. Emandako botuen % 15a lortu dutenen artean, bigarren eta hirugarren boturik gehien izan duten zerrendetako buru direnak lehenengo Lehendakariorde, eta bigarren Lehendakariorde aukeratuak izango dira. Horrela ez bada, Lehendakariordeak, % 15 gainditu dituzten zerrendetakoak izango dira. Hala era, emandako botuen bosteko laua lortu duten edozein hautagaiak izango dira hautatuak.

HIRUGARRENA. Lurralde Batzordeetako kiden aukeraketarako arauak :

30 artikulua erabakitzen duenerako, hurrengo arauak beteko dita :

1.^a Batzorde Eragilea aukeratzen den Batzar orokorraren jarraian egingo da hautapena.

2.^a Elkartekide diren lurraldeko Alkateek edo hauek izendaturiko Udalbatzakeek izango dira hutesle eta hautagaiak.

3.^a Hautagaien zerrendak hautapena baino 5 egun aurretik aurkeztuko dira.

4.^a Lurralde bakoitzeko lehendakaritza mahaia bertaratzen diren adin nagusiko ata txikieneko hautesleez osotuko da, Elkartearen Idazkaritzak lagunduz.

5.^a Botaketa alda-batera egingo da, kutxontzi diferentetan, emaitzak ere alda-batera esango direlarik.

6.^a Postuen leporatzerako, zerrenda bakoitzeko botuak gtik biderkatzen dira ata emandako batuen kopurutik zatikatu, zerrenda bakoitza bate hauteskunde zalidurak adierazten duena izanik eta gainerazko postuak garra hondar nagusien zemendetara karratuak direlarik.

LAUGARRENA. Hemendik aurrera Batzarrak hartuko dituen akordioak, Araudi honetara gehituko dirá, eranskin bezela.

Ekonomia-urtealdi honetarako, bazkidezotrak honako hauek izango dira:

2.500 biztanlerainoko udalak	50.000 pta.
2.501etik 5.000 biztanlerainoko udalak	150.000 pta.
5.001etik 10.000 "	250.000 pta.
10.001 etik 20.000 "	500.000 pta.
20.001 etik 50.000 "	750.000 pta.
50.001 etik 100.000 "	1.000.000 pta.
100.001 etik 200.000 "	1.250.000 pta.
200.000 biztanletik gorako	1.500.000 pta.